

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

0 positibo berri
2.313 positibo guztira*

1.571 hildako EAEn
17 UCIn, EAEn

NAFARROAN

10PCR positibo berri
5.316 PCR positibo guztira

515 hildako
9 UCIn

*Hernanin 61, Astigarragan 21

Sendatuak: EAE 16.923, Nafar. 6.630

Amaitu da Astigarragako Udalaren online programazio kulturala, 1.300 ikustaldi baino gehiagorekin

Covid-19aren hedapena sahiesteko, alarma egoera piztu zenean, Astigarragako Udalak aurrez aurreko kultur ekitaldi guztiak bertan behera uztea erabaki zuen, eta horien ordean onlineko programazioa eskaintzen hasi zen. Hala ere, egungo egoera dela eta, Kultura Sailak uste du eskaintza honekin amaitzeko unea dela.

ASTIGARRAGA UDALA

Astigarragako Udalak, Koronabirusaren hedapena sahiesteko hasieratik, kalean, herrian, kultur etxean egingo ziren kultur ekintzak bertan behera uzteko erabakia hartu zuen, eta horien ordean, online programazioa eskaintzen hasi zen herritarrei, etxetik ere kulturaz goza zezaten.

Egun, kalera ateratzeko baimena geroz eta «zabalagoa denez», Astigarragako Kultura Sailak uste du, eskaintza honekin amaitzeko unea heldu dela, «guztira, haur eta familiei zein helduei eskaintako ikuskizunek, 1.300 ikustaldiak gainditu dituzte».

«Haur eta familiak»

Aipatu moduan, Astigarragako

Udalak, haur eta familientzat etxetik egiteko hainbat jarduerara eskaini ditu, azken hilabeteotan; diskofestak, antzerkiak, zirko tailerrak, sukaldaritza tailerrak, ipuin kontaketa, magoak, esperimendu tailerrak eta txontxongiloak, besteak beste.

Astigarragako Udalak jakinarazi du, «arrakasta gehien izan duten edukiak diskofestak eta zirkoak» izan direla, izan ere 200 eta 100 ikustalditik gora izan dituzte, hurrenez hurren.

«Helduak»

Udalak, webgunean helduei zuzendutako bideoak ere eskaini izan ditu zenbait asteburuetan, eta azaldu du, antzezlanek izan dutela arrakasta gehien, «Koaderno zuri izan da bixita gehien izan dituen bideoa, 252



Amaitu dira, Astigarragako Udalak eskaintako online bidezko kultur ekintzak. Argazkia: Lur Korta

ikustaldirekin», hain zuzen. Eta gehien ikusi diren hurrengoak, Juntos antzezlan, eta El Florido

Pensil Neskak izan dira, 163 eta 124 bixitarekin. Datozen hilabeteetan, ahal

den neurrian, aurrez aurreko ekitaldiak eskaintzen hasteko asmoa du Udalak. **K**

Udalak antolatzen dituen ikastaroen antolaketan eta ordaintzeko moduetan, aldaketak egongo dira

Koronabirusak sortutako osasun krisiaren ondorioz, Hernaniko Udalak, ikastaroen antolaketan aldaketak egon daitezkeela aurreikusi du, eta hainbat «irizpide» hartu ditu kontutan, tasen kudeaketetan.

HERNANI UDALA

Covid-19ak eragindako osasun krisi eta alarma egoeraren ondorioz, Hernaniko Udalak ikastaroen antolaketan aldaketak egon ditezkeela aurreikusi du, eta jakinarazi du, tasen kudea-

ketari begira, hainbat irizpide hartuko direla kontutan.

Aldaketa hauek, 2020-2021 ikasturteari eragiten diote. 'Hernani' eta 'Kantuz' udal musika eskolak, Biteri kultur etxearen ikastaroak, udal euskategia, eta udal kiroldegiko zerbitzuetan

ezarriko dira aldaketak, edo aipatutako tasen irizpideak.

Honako hauek dira aldaketak: Zerbitzua edo klasea, presentzialki emateko aukerarik egon ez, eta online ematen denean, «dagokion tasaren kuantan, %25eko hobaria aplikatuko

da». Aforoagatik eta halabeharrez, zerbitzua edo klasea presentziala eta online denean, «tasaren kuota osoa kobratuko da». Udalak zerbitzua edo klasea, presentzialki edota online ematerik ez duenean, etenda egongo den denboraldi horri

dagokion tasaren zatia ez da kobratuko. Eta azkenik, aforo mugagatik, zerbitzua edo klase orduak murriztu behar badira, ordu murrizketaren proportzio berean murriztuko dira tasaren kuotak. Ordainketa bakarra ere, bertan behera geldituko da. **K**

ME
MARTUTENE
Lanbide Eskola

Oinarrizko Lanbide Heziketa

ELEKTRIZITATEA
ELEKTRONIKA

INFORMATIKA
KOMUNIKAZIOAK

AURREMatrikula
2020.06.01 - 2020.06.19

943 46 01 45 / 610 787 001
info@fpmartutene.org
fpmartutene.org

JAMER
TABERNA

Ireki ditugu ateak berriz ere!

EGIN ZURE ERRESERBA

MENUA ETA KARTA

943 33 08 58
Astelohen eta asteartean itxita

Zorionak Amaia!

Zorionak Iraitz!

Haunditzen haunditzen...
Pott goxo bat!

GAUR Fronte bat sartuko da gaur eta euritara joko du. Zaparradak sarragoak izango dira egunaren lehen partean, arratsaldean erabat atertuko ez badu ere, aterruneak luzatuko dira. **Min.12° / Max.15°**

BIHAR Bihar ildo beretik hasiko dugu, giro nahasia eta fresko samarrarekin. Ipar-mendebaldeko haizearekin zaparradak sartuko dira. Tenperaturaren ez dugu aldaketa handirik espero behar. **Min.10° / Max.17°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) Egunez: **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** Gaez: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



Hernaniko merkataria eta ostalariekin lehen saioa egingo da bihar

Hernaniko Udalak, Berriak merkataria elkartearekin elkarlanean, elkar laguntza eta elkar ikasketa saioak antolatu ditu, Hernaniko ostalari eta merkatariei laguntza emateko asmotan. Bihar izango da lehen saioa euskeraz, egurdiko 14:15etan hasita.

HERNANI UDALA

Hernaniko Udalak, Berriak merkataria elkartearekin batera, elkar laguntza eta elkar ikasketa saioak antolatu ditu, Hernaniko merkataria eta ostalari guztiengat, eta saio hauek doakoak

dira.

Bihar lehen saioa, euskeraz

Bihar eskainiko da lehen saioa, euskeraz. Egurdiko 14:15etan emango zaio haisera, eta arratsaldeko 16:00etan amaituko

da. Gehienez 15 pertsonak har dezakete parte bertan, eta Zoom plataforma bidez eskainiko da. Gaztelaniazko klasea, asteartean izango da, ordu berean, egurdiko 14:15etan.

Saio hauekin, hainbat helburu lortu nahi ditu Hernaniko Udalak, Berriak merkataria elkartearekin batera, hala nola, merkataritzaren edo ostalaritzaren aukeren, mehatxuen, indarguneen eta ahulguneen azterketatik hobekuntza eta garapenerako bideak elkarlanean sortzea. Ahalmen mapa bat egitea, eta azkenik, irekiera faseko mugimenduari «arreta jarri eta elkar eustea». **K**

Izena eman daiteke, piragua ikastaroan

Hernaniko Udalak, nerabeentzat piragua ikastaroa antolatu du, eta izen ematea, ekainaren 11n amaituko da.

HERNANI UDALA

Ekainaren 15etatik 19ra bitartean, gazteentzako piragua ikastaroak antolatu ditu Hernaniko Udalak. 12 eta 17 urteko gazteentzat zuzendutako saioak izango dira, eta arratsaldeko 16:00etatik 17:30etara iraungo dute.

Ikastaroa, doakoa da, baina Udalak jakinarazi du, plazak mugatuak direnez, «10 euroko

fidantza» jarri beharko dela. Eta saio guztietan parte hartzen duenari, ikastaro amaieran fidantza iztuliko zaio.

Izen ematea, online

Izena emateko azken eguna, datorren osteguna da, hau da hilaren 11. Beraz, parte hartzeko gogoia izanez gero link honetara sartu: <https://labur.eus/TbZH8>.

Gainera, ikastaroa segurtasun eta higie neurriak konstante harturik antolatu dira. Aire librean egingo dira saio guztiak, eta taldea kopuruz txikia izango da. Jardueran erabiliko diren material guztiak ekintza hasi aurretik eta ondoren desinfektatuko direla azaldu du Udalak. **K**

San Joanei buruzko hausnarketa kanpaina abian, Sutu Jaiak taldeak

Aurtengo «ohiko» San Joanak bertan behera gelditu direla eta, Hernaniko Sutu Jaiak taldeak, herriko jaiak buruzko hausnarketa kanpaina jarri du abian, eta parte hartzea irekia da.

HERNANI SAN JOANAK

San Joanak bertan behera gelditu direnez, Hernaniko Sutu Jaiak taldekoek, herriko jaiak buruzko hausnarketa kanpaina

jarri dute martxan. Eta hainbat galdera egiten dituzte bertan, hala nola, zergatik ospatzen ditugu festak? zertarako antolatzen dira? zer jai eredu bultzatu behar du Sutuk? zer lortu da

orain arte? eta zer egingo dugu aurretik? Galdera hauei erantzuteko eta parte hartzeko deia luzatu dute antolatzaileek, «idatzi eta elkarbanatu gurekin zein den zure ideia eta hausnarketa».

Ideiak bidaltzeko kontaktua

Ekainaren 15 arte jasoko dira ideia eta hausnarketak, sutu-jaiak@gmail.com helbide elektronikora, edo sare sozial bidez ere idatzi daiteke. **K**

San Antonio egunean, txistularien diana eta bertsolariak ibiliko dira, auzoa girotuz

EREÑOTZU SAN ANTONIO

Aurten ez dira, «betiko» San Antonio jaiak ospatuko. baina eguna oharkabean pasatzerik badute Ereñotzuko auzotarrek. Izan ere, San Antonio egunean, hau da, datorren larunbatean, txistularien diana egongo da, eta bertsolariak ere ibiliko dira bailaran zehar, auzoa girotuz. Gainera, jakinarazi du Ereñotzuko Auzo Udalak, uztailetik aurrera kultur ekintza ezberdinak antolatzeko martxan direla.

Udako antolakuntza berriarekin, Astigarragako Gaztelekua

ASTIGARRAGA GAZTELEKUA

Astigarragako Gaztelekua, antolakuntza berri bat eraiki du, nerabeekin ekintzak egin ahala izateko. Lehenik, azaldu dute, ekintza eta edozein kontaktu izateko neurriak hartuko dituztela, hori horrela, «maskarilen erabilpena ezinbestekoa izango da, hezitzaile zein parte hartzaileekin eraman beharko dute». Eta gainera, ekintzak, hartu beharreko neurrietara egokituta egongo direla ere jakinarazi dute, «jolas, denbora pasa edota aurrera eramango diren ekintza guztiak moldatu egin ditugu nerabeen segurtasuna disfrutatzearekin batera bermatuta egon dadin». Horretarako, herriko ibiliko dira arratsaldeetan zehar, nerabeekin elkartzen hasteko. Bestalde, *Instagram* eta *Whatsapp* bidez ere kontaktua mantenduko dute, egingo diren ekintzen berri emateko, eta aldi berean «haiekin harremana izaten jarraitzeko». Ekintzetan izena emateko datak ere helaraziko dituztela azaldu dute. Azkenik, aipatu dute, «udako ekintzak antolatzen gabiltzala eta beste urteetan ez bezala, parte hartzeko, izen ematea ezinbestekoa izango dela, momentu oro segurtasuna mermatuta egon dadin». Izen ematea bihar hasiko da, eta ekainaren 12an amaituko da, udalaren webgunean irekiko da izena emateko esteka. Eta edozein zalantza izanez gero, asti.gaztelokala@gmail.com helbidera idatzi.

IRAGARKI MERKEAK

Emakumea lan bila: etxeko lanak egiteko, aitona-amonak zaindu, goizez eta arratsaldez.

Deitu 602 04 98 90

Etxebizitza bat alokagai. Bi gela ditu eta dena kanpokaldera. **Deitu: 619 81 33 57**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

JASOTA BEZALA

gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. | Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

'Izan Bidea' Hernanin

COVID-19ak eragindako itxialdiak bi hilabeteko etena eragin badu ere, Hernaniko sarekieok berriz martxan gara.

Jakingo duzuen bezala, azken egunotan, Sarek abian jarri duen IZAN BIDEA dinamikaren berri eman du komunikabideetan. Dinamika honen helburua p reso eta iheslarien auziari behin betiko aterabidea eskaintzeko urratsak ematea da. Euskal Herriko jendartearen gehiengo dago nabarmenki gatazkaren konponbidearen alde, bizikidetzaren alde, bakearen alde eta euskal presoak eta iheslariak etxera ekartzearen alde. Kontsentsuak dagoeneko hor daude; helburua da kontsentsu horiek agenda politikoetara eramatea eta, horretarako, ezinbestekoa

dugu jendartearen aktibazioan sakontzea, eta herri honen aniztasuna eta zabaltasuna helburu horietan batzea.

Izan bidea dinamika erronka batean oinarritzen da: 3.127.326 km egitea! Euskal Herriak duen biztanle-kopurua kilometrotan egitea, alegia. Hiru milioi kilometro egiten hasiko den hiru milioi biztanleko herri bat, helburu batekin: bidea egitea, etxerako bidea, elkarbizitzarako bidea. Hernaniko sarekieok erronka horri aurre egiteko gure plangintza propioa egiteko lehen urratsak ematen hasiak gara.

Gaur egun, euskal presoekin artean 17 dira Hernanikoak. Kartzeletaraino joan-etorriak kilometrotan kontatuz, gutxi gorabehera 20.000 km dira

guztira, Hernaniko biztanleak adina kilometro. Beraz, biztanle bakoitzeko km bat zenbatzea dugu helburu. Ekimen hau aurrera eramateko pausuen berri datozen hilabeteetan jakinaraziko dizuegu. Covid 19a dela-eta, deseskalatzen goazen heinean, gure asmoak modu zabal eta eraginkor batean ezagutaraziko dizkizuegu.

Badakigu ez daukagula lan makala, baina gogotsu eta ilusioz gaude hernaniarrekin elkarlanean erronka berri honi aurre egiteko. Esan gabe doa, guztion ekarpenak ongi etorriak izango direla.

Joxepi Etxeberria Iturralde Itziar Mujika Garitano Hernaniko Sare